

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARMIÑONGO UDALA

Jendaurrean jartzea landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko eta ezaugarri berezietako higiezinaren gaineko zergaren 2020ko erroldak

Alkatearen ekainaren 3ko 36/2020 Dekretuaren bidez osaturik Armiñongo hiri, landa eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2020ko erroldak, jendaurrean jartzen dira, Ondasun higiezinaren gaineko zergaren Foru Arauak 21.2. artikuluan xedatutakoa betez; udal bulegoetan egongo dira erakusgai, hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Errolda horiek udal bulegoetan kontsultatu ahal izango dira, aztertu eta egoki jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izan daitezten.

Udaletxera joan nahi duenak, COVID-19aren hedatzea saihesteko hartutako segurtasun neurriak direla eta, hitzordua eskatu beharko du aldez aurretik, 945365088 telefonora deituta edo aarminon@ayto.araba.eus posta elektronikora idatzita.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Armiñon, 2020ko ekainaren 3a

Alkatea

JUAN MUÑOZ BARTOLOMÉ